



UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/03/12) Hurrengo saioa: 2019/04/02	Diru-laguntzak: deialdi berriak	Orain arte eskatutako diru-laguntzez gain (Ingurumena, Landaola, Parte-hartze prozesua, Bide-gorriarena) edo izendatuta daudenez gain (Leader, Landaola) beste deialdi batzuk atera dira eta martxoaren 27rako aurkeztuko dira. <ul style="list-style-type: none">- <u>Jarduera fisiko eta kirolerako diru-laguntza</u> (Udalari gaingastua suposatzen dioten jarduerak txertatuko dira)- <u>Euskara sustatzeko diru-laguntza</u> (2019an zehar egiten diren ekintzetarako) Diru-laguntza bakoitzerako aurkeztuko diren ekintzak zerrendatu ditugu.	
	Batukada	Aste Santu ondorenean hasiko den jarduera hau antolatzeko martxoak 5ean gelditu gara ekimenaren gidaritza egingo duenarekin	Materiala eskuratu, eguna zehaztu, jakinarazpena egin
	Birrintzailea erabiltzeko araudia	Udalak erosi duen birrintzaile edo trituradora edozein herritarrek erabili ahal izango du. Interesa azaltzen dutenentzat funtzionamenduaren inguruko azalpenak emango dira Itsasoko Goiko Plazan martxoaren 23, 17:00etan.	- Jakinarazpena zabaldu - Zuhaitz adarrak Goiko plazara eraman
	Pelikula baterako lokalizazio bila	<i>Akelarre 1609</i> pelikula grabatzeko lokalizazio bila etorri dira Itsasora. XVII. mendearen hasieran girotua dago eta hainbat leku erakutsi zaizkie. Adieraziko digute aukeratuko duten baten bat.	Hala balitz maiatza-ekainean grabatzera etorriko lirateke.
	Auzolana	Apirilaren 13ko auzolanerako proposatzen diren lanak zerrendatu dira eta zenbat talde egingo diren ere zehaztu da. Batik bat, lan hauei helduko zaie: Ibilbideak markatzen bukatu (posteeetan izenak, logoak,...), panelak jarri, mahai eta bankuak montatu, deskatalogatuta dauden bide markak kendu, lorategiak txukundu,...	- Talde bakoitzeko arduraduna izendatu - Materialaren zerrenda osatu
	Herri Batzarra	Udal Hauteskundeetara begira, Itsasoko Udal taldea osatzeko zein irizpide erabiliko den zehaztea litzateke Herri Batzarraren helburua. Lanketa hau apirilaren 6an egiten hastea proposatzen da.	2017 landutako irizpideak berreskuratu eta, hala irizten bada, berriak proposatu



LAN-TALDEA	AZTERGAIAK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2019/03/13-27) Hurrengo saioa: 2018/04/10)	Zaborren kudeaketa Alegiako Birziklagunean	Gabiriako udalekoekin adostu dira Alegin bien arteko kudeaketa partekatua egiteko baldintzak. Datorren astean Alegiko bileran izan ziren herritarrei postaz iritsiko zaizkie txartel berriak, eta bilerara joan ez zirenak apirilaren 3an udaletxean jaso beharko dituzte, 4etatik 7etara (Sasietakoak izango dira bertan)	Apirilaren 3rako herritarrei deia egin
	Itsasoko obra	Ranpa eta atariko granittoa, eta Ostatura jaisteko barandilla jarri eta paretakoa altxatu dira. Falta diren erremate batzuk komentatu dira.	Azkenengo erremateak adostuko dira Artzamendikoekin
	Hurrengo azpiegitura proiektua	Alegia-Uribar bide berdeari ekingo zaio. Jada desjabetzak eginda daude eta asfaltatzeko aurrekontuak eskatuta	Asfaltatze lanak esleitu
	Itsasoko Ostatuaren teilatua eta ganbara	Egitura aldetik zein berme duen ikertu behar da lehenik eta Teknalia-k egingo du egitura analisia, apirilaren 9 eta 10ean	Estudioa egin ondoren lizitazioa atara
	Ostatuko etxebizitza	Hainbat konponketa egiten ari dira etxea bizitzeko moduan jartzeko: komuna txukundu, leihoak ixteko moduan jarri, trasteak atara, ur beroa behetik gora igo, e.a. Paretak pintatzeko aurrekontua eskatuko da. eta segidan ikusiko da zoruak akutxilatatu bat eskatzen duen.	Ekainerako bukatzeko auzolanean zer egin litekeen aztertu
	Goiener, energia garbietan oinarritzen den enpresa hornitzailea	Goiener kooperatibaren funtzionamendua eta helburuak partekatu dira. Energia berriztagarriak bultzatzea eta ahal den heinean era lokalean sortzea da elkartearen helburu nagusia Itsasoko Udalak 7 kontagailu ditu (7 faktura). Goienerrek, merkaturatzaile bezela faktura hoiekiko eskaintza luzatuko dio.	Enpresarekin aukera landu
	Altzigarraga-Mandubia bidea	Egin den konponketarekin ez dela nahikoa nabarmen ikusten da euria egin duenean: lokatz guneak, erretenen falta eta daudenak estuegiak.	Aparejadorea jabearekin geratuko da egin beharreko hobekuntzak luzatzeko.



	LANDABIDE dirulaguntza	Aurkeztu diren proiektuak: S Lorentzo bideko 26 metroko eskollera, Altzigarragako 14 metrokoa, Iturritako bidegurutzean 60 metrotan hormigoï kapa, eta Itze-Urkulegi bidean eskoriagatik altxatutako tramo bat konpontzea bat	
--	------------------------	---	--

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/03/026) Hurrengo saioa: 2019/04/09	Ikastaroak Aste Santu ondorengorako	-Dietetikari buruzko proposamenari eguna jarri behar zaio. Alegiako Elkartean izango da. Hitzaldia eta jakiak probatzea. -ARGITUkoek ere eskaintza luzatu dute aurreko bi ikastaroen jarraipena izango dena -Batukada taldea sortzen bada larunbat arratsaldeetan Hariztizabalgo Enekorekin aurrera egingo du -Sukaldaritza ere antolatuko da Manurekin zehaztuz	Zehaztasunak izan ahala deialdiak egin
	Herri Ostatuei buruzko ikastaroa Orexan	Eskaintza interesgarria ailegatu da Tolomendik bultzatua: Ostatuak herri proiektu gisa lantzeko aukeraz. Apirilaren 4ean Gorka eta Manuk parte-hartuko dute. Bertako produktuak, informazio bulego, harrera... Jarraipena ekainaren 4ean izango du.	Izena eman
	Herri Batzarra Hauteskundeei begira	Apirilaren 6an, larunbata, arratsaldeko 19:00etan, korupean: 1. Itsasoko Udalaren bi urteetako balantzea partekatu. 2. Itsasoko Udala kudeatzeko Batzordea aukeratzeko irizpideak, prozedura eta data erabaki. 3. Hurrengo larunbatean (apirilaren 13an) izango dugun auzolana landu. 4. Norberak lekarkeena.	Berriazko deialdia egin